

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, KOSMOPOLITA ETA EUSKADIN SUSTRAITUA

Hau da duela 3 urte Eusko Alderdi Jeltzaleak Getxon gure herriko bizilagunekin hartu zituen 10 konpromiso nagusietatik hamargarrena. "Munduari irekia eta Herriarekiko konpromiso handiarekin, euskararekiko, gure kulturarekiko eta tradizioekiko konpromisoa. Gero eta globalagoa den mundu honetan, Getxo, euskal erakundeekin lankidetzan, nortasun propioarekin ager dadin lan egingo dugu". Argi eta garbi ikusten diren ekintza eta egitateen bidez, konpromiso horren ardatzak egunez egun betetzen ari gara baiezatu dezakegu. Getxo eredu-garria da euskal kulturaren tradizioa eta adierazpen bikainak balioesteko orduan. Dantza Plaza, Getxo Kantari, bertsolaritzaren arloko era askotako proposamenak, Muxikebarriko programazioa, RKEEn edo urte osoan zehar Getxoko kaleetan egiten diren emanaldietan. Korrika edo Euskaraldia, euskararen erabilerarekiko konpromisoaren adierazgarri direnak; Euskara Sustatzeko Plana, ESEP, udal barruko eta kanpoko tresna gisa; udalekuak eta ludoteka haurrentzat; egunero euskara edo Euskal Kultura gozatzeko, ikasteko eta irakasteko programak, ekintzak



eta guneak eskaintzen dituzten erakunde eta elkarteei laguntzea, altxor handi horren etorkizuna bermatzeko. Egitate horiek baiezatu egiten

dute, argi eta garbi, gure hitza betetzen ari gara. Getxoko EAJ-PNVren hauteskunde programaren konpromisoa, 10ekoa, Amaia Aguirrek gidatua, Ge-

txo mundura eta bertako jendearengana zabaltzea azpimarratzen duena. Konpromiso horiek udaleko arlo askoren lan partekatua ardatz izaten ari dira, bai kirolak, kultura, euskara, mugikortasuna, bai sustapen ekonomikoaren arloa. Eta, aldi berean, susperraldi ekonomikorako Next Generation funtsak Getxotik aurkeztutako proiektu askotan geratzea ahalbidetu duen ardatzetako bat. Europako eta nazioarteko irizpideekin lan egiten delako. Izan ere, aurrera egiteko beharrezkoa da nazioarteko abangoardian egotea eta, aldi berean, sustraiak eta tradizioak mantentzea. Jakin behar dugulako eta oso argi izan behar dugulako gure aurretik egon zirenen iragana eta historia Getxoko orainarekin eta etorkizunarekin bateragarri bihurtu behar dugula, hau guztia nola uztartu. Eta horrela aurkeztu ginen, eta hala jarraitzen dugu: Josean Artze poeta eta musikariak esan zuen bezala, "Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri zaharretik" (De la vieja fuente bebo, bebo el agua nueva, el agua que siempre es nueva, de la fuente que siempre es vieja).



KAFETEGIA ETA TERRAZA NEGURIKO GELTOKIRAKO



Neguriko geltokia zaharberritu ondoren, premiazkoa da martxan jartzeari, bertako bizilagunen beharrak asetzeko erabilera emanda. PPK antzinako Taberna berreskuratzea proposatzen dugu, eta terrazadun kafetegi bat hartuko duen espazio berria prestatzea eta egituratzea. Gune hau komun publiko eta turismo bulego batez hornitu nahi dugu, bertara hurbiltzen den bisitari kopurua handia

delako eta Metroaren geltokitik geratu dagoelako. Barruan, gainera, irakurketarako eta ordenagailuetarako gune bat egongo litzateke. Ezin dugu itxaron denbora igaro eta eraikina lehengo utzikeria egoerara itzuli arte. Gure proiektua berrikuntza handia egiteko beharrik gabe gauzatu liteke, ekimenaren abiapuntua eraikinararen egitura aprobetxatzea baita. #despiertagetxo



GETXOKO ONDARE HISTORIKOA BABES DEZAGUN

ETSk Neguriko tren geltokiko lanak amaitu berri ditu eta laster bere erabileraren zerbitzua lizitatuko du. Gure ustez, eraikinaren erabilera auzokideek erabaki beharko lukete, eta, beraz, eskatuko dugu kontuan hartzeko auzoan bizi direnen iritzia. Edozelan ere, pozten gara, azkenean denon presioari esker lortu dugulako eraikina eraberritzea. Tamalez, beste eraikin batzuek ez dute zorte berbera izan gurean: Ollarretxe, Arrigunagako jaitsierako eraikinak, Maidagan... Hurrengo hilabeteetan zerrrendara gehituko dira Villa Amparo eta Villa Fernanda (Algortako Haurtegi ohia, Eusko Jaurlaritzaren txostenaren kontra gainera) eta Romoko Lope de Vega kaleko eraikin historikoak. Azken kasu hau bereziki mingarria da, bertan dagoelako Nagusien Etxea

eta erabat eredu-garria delako bertan egiten ari diren lana: zahartze aktiboa, konpromisoa, autokudeaketa, komunitatearen saretzea... Agian horrek kezkatzen ditu EAJ eta PSE, euren kontrolerik kanpo antolatzen ari direlako euren burua. Gogora dezagun, gainera, PSEk hauteskunde-kanpainan esan zuela eraistearen kontra zegoela, muga gorria izango zela eurentzat. Gezurra esan nuen etxean, ni baino lehenago kalean. **Ekainaren 22an 20:00etan Lope de Vegako eraikinak eraistearen kontrako mobilizazioan parte hartuko dugu**, beste behin ere. Neguriko tren-geltokiak bezalaxe, Romoko eraikin historiko hauek ere merezi dutelako babestea eta zaintzea, are gehiago gainera jardueraz jositako baldin badaude, Nagusien Etxearen kasuan bezala.



TAO, AURRERAPENA ETA AUKERA GETXORENTZAT

Ekainean TAO sistema berria indarrean sartu da Areetako, Algortako eta Romoko kale askotan. Guztira, aldaketaren ostean 3.875 aparkaleku egongo dira araututa, aurretik zeudenak baino 2.445 gehiago. TAO eremuak handitzea PSE-EEK gure Hauteskunde Programan sartu zuen proposamena da. Proiektu hori udalerritik kanpoko ibilgailuen etorrerak gehien eragiten dien auzoetan zentratzen da bereziki, kanpoko aparkaleku-eskaera handia duten eremuetan. Izan ere, erregulazio-sistema honi esker, dauden aparkaleku asko arindu ahal izango ditugu, eta, horrela, Getxoko bizilagunentzako apar-

kalekuak babestu eta bermatu. Orain, martxan jarri ondoren, sistemaren bilakaera ondo aztertu behar dugu, eta hura hobetzeko beharrezkoak eta egokiak diren aldaketak ezarri behar ditugu, hala nola 2., 3. eta 4. eremuak alde bakar batean egituratzea eta antolatzea, edo hautematen diren beste alderdi batzuk. Gainera, TAOari esker, mugikortasuna hobetuko da eta gure hondartzak gehiago eta hobeto erregulatuko dira, uda sasoi honetan bisita asko hartzen dituztelako. Espero dugu herritarren ekarpenak jaso dituen ordenantza parte-hartzaile honek tokiko merkataritza dinamizatzeko ere lagunduko duela.



¡NO AL DERRIBO! ERAISKETARI EZ!

¡NO AL DERRIBO!
ERAISKETARI EZ!



MANIFESTACION: 22 JUNIO
20H desde edificios Lope de Vega

Elkarrekin Podemos babes osoa ematen diogu eta bat egiten dugu Nagusien Etxea eraistearen aurkako manifestazioarekin.

Gobernuak alde bakarreko erabakiak hartzeari utz diezaiola eskatzen dugu, auzoak kontuan hartu gabe, eta arreta eman diezaiela bizi eta erdiguenean jartzeko eta pertsonen entzumenak izateko borrokan ari diren kolektiboek. Kanean ikusiko dugu elkar.